



ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2023-KO PRIMADERAKO HIRUHILABETEKARIA

BULLETIN TRIMESTRIEL DU PRINTEMPS 2023



PAROLE(S) AUX HABITANTS

En ce début d'année, a débuté le cycle de réflexion "Parole(s) aux habitants" qui a pour but de penser collectivement le futur aménagement du bourg. Les deux premières réunions ont eu lieu le jeudi 2 mars et le dimanche 26 mars. Elles ont réuni une quarantaine de villageois.

La première rencontre a permis dans un premier temps de réflexion de faire un constat des atouts et inconvénients du bourg à l'heure actuelle puis d'envisager le village dans 15 ans.

La deuxième réunion a été l'occasion de découvrir ou redécouvrir à pied le bourg à travers trois boucles d'une vingtaine de minutes. De retour à la salle de la cantine, les participants par petits groupes ont réfléchi à une proposition d'aménagement sur un plan.

Ce cycle de réflexion se poursuit en ce mois d'avril avec une troisième réunion le jeudi 20 à 20h. Les personnes qui souhaiteraient faire le tour effectué lors de la deuxième réunion afin de pouvoir avoir tous les éléments en tête, en auront la possibilité en venant à 19h.

Ensemble, offrons à notre village le bourg qu'il mérite!



HERRI BARNIA GOGOETAN

"Herri barnea gogoetan" zikloa hasi da urte hastapen huntan. Horren helburua biharko plazaren antolaketa kolektiboki pentsatzea da. Lehen bi bilkurak iragan dira martxoaren 2an, ostegunetz eta martxoaren 26an, igandez. Bietan 40 herritar hurbildu dira.

Lehen gogoeta bilkuran, oraiko plazaren abantailak eta ahuleziak argitan ezarriak izan dira. Gero taldeka pentsatua izan da zer itxura ukan behar lukeen herriak 15 urteren buruan.

Bigarren bilkuran, hogeita minutuko 3 ibilaldi egin dituzte herritarrek. Ariketa horren bidez, plaza beste molde batez ezagutu dute. Kantinako gelara berriz itzuli ondoren, taldeka plazaren antolaketa berri bat proposatu behar zuten.

Hirugarren bilkura bat iraganen da apirilaren 20an, 20:00tan. Herritar batzuek nahi badituzte bigarren bilkuran eginak izanen diren itzuliak egin oren bat lehenago jin ditzazke.



Hala nola, 2. bilkuran hasi izan den lanaren segida izanen da hirugarren denboraldi hau.

Herri honek merexi duen plaza elgarrekin eraiki dezagun!

LAN HERRIXKAREN ATE IDEKIAK

Ortzaizeko lan herrixkak, 2007an estreinatua izan zenak, 8. aldikotz bere atea zabalduko ditu maiatzaren 6, 7 eta 8 an.

Arrosako bidean diren 18 enpresek 120 enplegu sortu dituzte herrian.

"Ortzaize" elkartearen talde izpirituari esker animazio desberdinak proposatuak izanen zauzkizue hiru egunez.

Egitarau aberatsa izanen da: tailerrak, bisitak, jastaketak, kantuak, sorkuntzak.

Herriko etxeak proposaturik, haurren dibertitzeko, La Ludo 64 elkarteak, egurrezko joko handiekin animazio bat eskainiko du ibiakoitz goizean 9ak terditatik eguerdi terdiak arte.

PORTES OUVERTES DU VILLAGE ARTISAN

Le village des artisans d'Ossès, inauguré en 2007, ouvre ses portes pour une 8^{ème} édition, les 6, 7 et 8 mai prochains.

Autour des 18 entreprises longeant Arrosako bidea, plus de 120 emplois ont été créés.

L'esprit collectif de l'association "Ortzaize" permet d'organiser diverses animations et portes ouvertes de découvrir des savoirs faire authentiques autour de l'artisanat et de la gastronomie.

Un programme riche en découvertes et ateliers, avec pour fil rouge "créativité et enthousiasme"

Afin de divertir les enfants, La Ludo 64, sollicitée par la Mairie, proposera une animation autour de grands jeux en bois le samedi matin de 9h30 à 12h30.

JOANA ALDAVE, 100 URTE - NOTRE CENTENAIRE !

Xuritenbordako Joana Aldave Ortzaizen sortu zen 1923ko apirilaren 7an.

2023ko apirilaren 7an, bere 100 urteak ospatu ditugu Xuritenbordak (Beleztegi auzoan)!

Ahaide, erizain, laguntzaile, lagun eta kontseilari batzuk bere inguruan elkartu dira ez ohizko urtebetetze hunen opatzeko.

Bakotxaren berri galdegin dauku bere usaiako izpiritu bizi eta nortasunarekin.

Aurrekua eskaini dako Bixente Mateok.

Xanpaina baso bat preziatu eta, kandelak itzali ondotik bixkotxa jan du

Egun ederra izan da bai aroaren aldetik baita ere partekatatu dugun momentu goxoari esker.



100 URTE ANS

Joana Aldave de Xuritenborda, quartier Beleztegi est née à Ossès le 7 avril 1923.

Vendredi 7 avril 2023, nous avons fêté ses 100 ans à Xuritenborda !

La famille, les soignants, les aidants, les amis et la municipalité lui ont fait la surprise de monter là-haut pour lui souhaiter ce mémorable anniversaire.

Dotée d'une grande vivacité d'esprit et d'un caractère bien trempé, elle était heureuse de nous recevoir chez elle et de demander des nouvelles de chacun.

Bixente Matéo a dansé l'« Aurreku » en son honneur ! Elle a apprécié une petite coupe de champagne, soufflé ses bougies et goûté le gâteau confectionné pour elle. Ce fut une bien belle journée ensoleillée et nous avons tous partagé un moment unique en sa compagnie.

OSSÈS • ORTZAIZE

VILLAGE D'ARTISANS EN FÊTE



Du 6 au 8 mai 2023

ATE IDEKIAK

Eskulanaren
Herrixka
Bestan



Samedi : Sorkuntza desfila / Défilé de mode à 16h

Dimanche : Show musical chez Goicoechea

Lundi : Kontzertua / Enaut Elorrieta en concert à 17h

TOUS LES JOURS : Erakustokiak, herriko mozkinak, bazkari, jokoak haurrentzat, konzetuak / Visites des ateliers, restauration, ateliers enfants, concerts, jeux, demonstrations, expo d'art, orchestres et bandas



Kultura bizirik nahi dugulako gure herrian !

Aro berri bat heldu da lan-talde honentzat eta xedea dugu proiektu berri batzuen plantan ezartzea, kulturari merexi duen lekua emanaz herrian. Ekitaldiak proposatzeaz haratago joan nahi ginuke, herrian, herritik eta herriarentzat eginen den kultura programa bat sustatuz, artista profesionalekin lan eginez, euskal kultura lehenetsiz lekuko kultura bezala, Ortzaizeko altxor eta segetuak deskubritzen eta jorratzen joanez, helburu nagusi bat segituz : kultura biziarekin, herriari bizi bat emaiten diogu. Karia horretarat, proiektu berriak plantan ezarri nahi ginituzke, baita aurrekondu garrantzitsuago bat aurreikusitako herriko kultura arloarentzat, Herriko etxearen betebeharreran sartzen delako, beste lurraldeko kolektibitateekin batera.

Proiektu horiek ez luketelako kolorerik herritarrik gabe, gomita luzatzen dautzugu, gurekin elkartzeko eta proiektu berri horri itxura baten emaiteko denek elgarrekin. Gure xedea hobeki adieraziko dizugu karia horretara eta zure ideiak partekatzekeo parada izanen duzu, antolaketan parte hartzekeo posibilitatea ere, edo ekitaldi berezi batentzat, zure eskukaldia ekartzeko manera. Zure moldera, edozein ekarpen ongi-etorria zaigu ! Ez dudatu hurbiltzea lehen gavaldi horretara eta zein maneratan ikusten duzun zure ekarpena egiten jakinaraziko daukuzu egun horretan.

Hitzordua emaiten dautzugu beraz Kultura eta Ondarea lan-taldera hurbiltzekeo, heldu den maiatzaren 16an, asteartarekin, arratseko 8terditan Herriko etxean.



Pour une culture vivante dans le village !

Il est l'heure de penser de nouveaux projets pour les prochaines années en donnant à la culture la place qu'elle mérite dans le village. Nous souhaitons aller au-delà de l'organisation d'événements artistiques et culturels, en promouvant un programme culturel dans le village, du village et pour le village, en collaboration avec des artistes professionnels, en donnant une priorité à la culture basque en tant que culture locale, en continuant à découvrir et travailler les trésors et secrets d'Ossès, en poursuivant un objectif central : en faisant vivre la culture, le village prend vie. Pour ce faire, nous voulons mettre en place de nouveaux projets mais aussi prévoir un budget plus conséquent pour la culture, celle-ci étant une compétence communale partagée avec les autres collectivités.

Ces projets n'auraient pas de sens sans la participation des Ortzaiztar, c'est pourquoi nous vous convions à une rencontre afin de dessiner les contours de ce nouveau projet tous ensemble. Nous vous ferons part de nos réflexions plus en détail à cette occasion, mais vous pourrez également apporter vos idées, participer à l'organisation du projet, ou encore aider dans la logistique pour des événements concrets. A votre façon, toute contribution est la bienvenue ! N'hésitez donc pas à venir à cette première rencontre et vous aurez l'occasion ce jour-là de nous dire de quelle façon vous souhaitez contribuer à ce nouveau projet.

La Commission Culture et Patrimoine vous invite le mardi 16 mai, à 20h30 à la Mairie. Nous vous y attendons nombreux.

HAURTZAROA

Otsailaren 22an asteazkenez, Eleka konpainiak "Iki mihi klik" ikusgarria bi aldiz eman du. Kantinako gela arramoldaturik karia hortara, Kattalin eta Jokin antzerkilariek ipuinak kondatu dauzkigute. Goizean, emanaldi labur bat proposatua izan da 3 eta 6 urte arteko haurrei zuzendua eta arratsaldekoa, luzeagoa, 6 urtetik goitikakoei zuzendua. Aisialdi zentroko egitaraua aberastua izan da haurrek ikusgarriaren ikusteko gomita ukan baitute.

Orotarat, 100 haur eta heldu hurbildu dira horien txalotzera.



ENFANCE

Le mercredi 22 février, la compagnie Eleka a joué son spectacle à deux reprises. La salle de la cantine remodelée pour l'occasion a permis au public de pouvoir entendre les histoires contées par Jokin et Kattalin.

Le matin, une version courte était destinée aux enfants de 3 à 6 ans et l'après-midi une version plus longue pour les enfants de plus de 6 ans.

Le programme du centre de loisirs a été enrichi par ce spectacle car les enfants présents y ont été conviés.

Au total, une centaine de spectateurs sont venus applaudir les comédiens.

KONTZERTUA ELIZAN

Arrosako, Irisarriko eta Ortzaizeko 3 eskoletako 120 bat haurrek, Euskal Herriko Orkestrak eskaini

emanaldi pedagogiko batean parte hartu dute, kobre kinketo baten inguruan, elizan.

Animazio horri esker, haurrek hainbat instrumentu ezagutzeko aukera izan dute, beren ezaugarriak eta beren soinua deskubritu dituzte. Soinu batzuk entzun dituzte, horietako batzuk filma ezagunetakoak ziren, haurren plazer

handiarentzat

Ondotik, Euskal herriko Orkestrak deneri idekia zen kontzertu eder bat eskaini digu gaualdia alegeratzeko.



CONCERT À L'ÉGLISE

Environ 120 enfants des 3 écoles du village, d'Arrossa et d'Irissarry ont assisté à une séance

pédagogique proposée par l'Orchestre du Pays Basque autour d'un quintette de cuivres à l'Église.

Cette animation a permis aux enfants de découvrir différents instruments, leurs caractéristiques et leur son. Ils ont pu écouter quelques morceaux dont certains issus de films bien connus des enfants pour leur plus grand plaisir.

Par la suite, un beau concert de l'Orchestre du Pays basque, ouvert à tous nous a permis de profiter d'une belle soirée musicale.



Gure Elizako soinua ederraz gozatzeko, Herriko Etxeak, Trounday Anaiak enpresari, egurrezko taulada (8m x 3m) desmontagarri baten eraikitzea galdegin zion. Horrek aukera emanen du kontzertuak eskaintzea aldarea mugitu gabe. Nahi duten elkarte guzietan erabiltzen ahalko dute.

Afin de pouvoir profiter du magnifique son de notre église, la mairie a demandé à l'entreprise Trounday Anaiak de construire une estrade (8m x 3m) démontable en bois. Cela permettra de faire des concerts sans bouger l'Autel. Toutes les associations qui le souhaitent pourront s'en servir.

AGENDA

APIRILA
20
AVRIL

Herri barna gogoetan:
3.bilkura

Parole(s) aux habitants:
3ème réunion

APIRILA
23
AVRIL

Lakako lasterkaldia
Course du Laka



MAIATZA
16
MAI

Kultura eta Ondarea bilkura idekia
Réunion publique Culture et patrimoine

MAIATZA
6,7,8
MAI

Lan herrixkako ate idekiak
Portes ouvertes du village artisan

MAIATZA
29
MAI

Lakaren garbiketa
Nettoyage du Laka